AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1407

AGINDUA, 2013ko martxoaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Luisa Augusto Vilela andreak Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrei Arreta Emateko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xedatzen duena (kodea: 520010; dotazioa: 151).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Luisa Augusto Vilela andrea Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrei Arreta Emateko Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari-lanpostutik kentzea, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea (lanpostuaren kodea: 520010; dotazio-zenbakia: 151; lanpostu mailako osagarria: 18; berariazko osagarria: VI-A).

Bigarrena.– Lanpostutik kentze honek 2013ko martxoaren 18tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 11.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.